

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

3939

114/2018 DEKRETUA, uztailaren 24koa, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluan bokalak kargutik kentzeko, izendatzeko eta berritzeko dena.

Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuak interes orokorrekotzat jotako portuak arautzen ditu atariko tituluaren II. kapituluaren; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan, Pasaiakoa eta Bilboakoa sartzeko portu horien artean.

Estatuaren lurralde-antolaketa ikusita, eta bere lurraldean dauden interes orokorreko portuek autonomia-erkidegoetan duten eragin ekonomiko eta soziala kontuan hartuta, aipatutako Legegintzako Errege Dekretuak portu horiek portuko agintaritzen (hots, portu horien organo zuzendari publikoen) antolaketa-egituran partaidetza handiagoa izan dezaten behar diren neurriak ezartzen ditu.

Zehazki, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen testuategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30.1 eta 30.2 artikuluan ezarritakoaren arabera:

«1.– Administrazio Kontseiluak honako kide hauek ditu:

(...)

b) Berezko kide bat; kide hori itsas kapitaina izango da.

c) Gutxienez 10 bokal, eta gehienez 13. Kanariar eta Balear uharteetarako, ordea, 16 artekoa izango da bokal-kopurua. Autonomia-erkidegoei edo Ceuta eta Melilla hiriei dagokie kopuru hori ezartzea, baita bokalak izendatzea ere.

2.– Autonomia-erkidegoek edo Ceuta eta Melilla hiriek, c) letran aipatu diren bokalak izendatzekoan, honako irizpide hauek errespetatuko dituzte:

a) Itsas kapitaina eta beste hiru bokal izango dira Estatuko Administrazio Orokorraren ordezkari Kontseiluan. Hiru bokal horietako bat estatuaren abokatu bat izango da, eta beste bat Estatuko Portuak erakunde publikokoa.

b) Administrazio Kontseiluko lehendakariak gain, lau bokalek ordezkatzeko dute Autonomia Erkidegoa.

c) Kanariar Uharteetan, kabilido bakoitzak ordezkari bat izango du, eta, Balear Uharteetan ere, kontseilu bakoitzak ordezkari bat izango du.

d) Portuaren zerbitzugunea euren mugartean duten udalek Kontseiluko gainontzeko kideen % 33ko ordezkari izango dute. Eraginpeko udalak bat baino gehiago badira, lehenik honako hauei egokituko zaie ordezkari: portu-agintaritzak administratutako portuari/ei izena ematen dion/en udalari/ei; eta, ondoren, gainerakoei: zerbitzuguneak udal-mugartean zer azalera hartzen duen, hainbateko proportzioan.

e) Kontseiluko gainerako kideen ehuneko 66, honako hauen ordezkariak izango dira: merkataritza-, industria- eta nabigazio-ganberenak, enpresa- eta sindikatu-erakundeak, eta portuen arloan garrantzi handia duten sektore ekonomikoak.

Kideen izendapena, nahitaez, Administrazio Kontseiluan ordezkariak duten administrazio publikoek, erakundeek eta organismoek proposatuta egingo da. Estatuko Administrazio Orokorraren kasuan, Estatuko Portuak erakunde publikoko lehendakariak egingo du proposamena.

Administrazio Kontseiluko bokalen izendapenak, lehen apartatuko c) letran aipatzen direnak, lau urteko indarraldia izango dute. Izendapena berri ahal izango da, hurrengo lehen aldian ezarritakoa eragotzi gabe.

Kontseiluko bokalak kargutik kentzeko erabakia autonomia-erkidegoko organo eskudunak hartuko du, bokal horiek ordezkariak dituzten antolakundeek, organismoek eta erakundeek hala proposatuta».

Horiek horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2018ko uztailaren 24an egin duen bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Bilboko Merkataritza, Industria eta Nabigazioko Ganbera Ofizialak proposatuta, ondoren adierazten diren bokalak Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseilutik kentzea.

– Juan Arana Uriarte jauna.

– José Manuel de la Sen Larrea jauna.

2. artikulua.– Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko bokal gisa izendatu behako zerrendan dauden pertsonak, Bilboko Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazio Ganberaren izenean jardungo dutenak.

– Juan Andrés Diez de Ulzurrun Moreno jauna.

– Gerardo Toro Arrúe jauna.

3. artikulua.– Esteban Pereda Esteban bokalaren izendapena berritzea, Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko ELA erakunde sindikalaren ordezkari gisa.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek ondorioak izango ditu Bilboko Portuko Agintaritzaren Administrazio Kontseiluko lehendakariari bokalak kargutik kendu, izendatu eta berri izana jakinarazten zaion egunetik aurrera; dekretua, bestalde, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.